

Skoni-ren Balio Proposamena

2-BALIO PROPOSAMENA

- Skoni enpresaren produktua, adineko pertsonentzat beharrezkoa da , baita ere desgaitasun fisiko eta mentala duten pertsonentzako. Guk sortu dugun erloju inteligente hau erabilgarria eta lagungarria izango da bizitza normal bat eramateko (mundu guztiak eros ditzake baina adinekoentzako eta desgaitasun fisiko eta mentaleko pertsonentzako egina dago.
- Asetuko dituen beharrak segurtasun eta osasunekoak izango dira, alde batetik segurtasuna zerbait pasatzen bada erlojuak automatikoki deitzen diolako familiari, erloju hauek nolako azukre igoera duen eta zenbat taupada igoera dituen adieraziko dute. bestalde osasuna bere taupadak neurtzen dituelako eta medikamendua edo horrekin zerikusia duen gauza bat hartzen badu, honek alarma batez abixatuko die familiari.
- Beste enpresengandik bereizten gaituen ezaugarri nagusia, desgaitasuna duten pertsonen osasun segurtasuna eskeintzea da eta familiei momentuan komunikazio zuzena eskeintzea da.

2.1-NORTZUK GARA

- Enpresa txiki eta berritzaile bat gara non gure bezeroen segurtasuna bermatu eta hobetu nahi dugu. Gure enpresaren barruan atal desberdinak ditugu adibidez: LZT(talde teknikoa) eta bezeroaren arreta zerbitzua. 50 pertsona inguruk lan egingo dugu enpresan, batzuk ingenieritzako ikasketak edukiko dituzte, baina beste batzuk Marketing ikasketak edukiko dituzte.

2.2-BALIO PROPOSAMENA

Hauek dira balio proposamenaren ezaugarriak:

2.2.1-NOBEDADEA

- Gure produktua nobedadea da, merkatuan ez dagoelako. Uste dugu produktu honek gizartearen arazo batzuei aurre egingo diela, horrela gehien behar dutenei laguntza eskeiniko diegu.

2.2.2-PRESTAZIOAK

- Gure erlojuak alarma bat, tentsioa , azukre maila, lo estadistikak, bihotz taupadak neurtzeko sensoreak ditu eta alarma botoi bat beharrezkoa denean deitzeko eta beste bat medikamenduak hartzeko.

2.2.3-PERTSONALIZAZIOA ETA DISEINUA

- Erloju honen diseinua ez da oso deigarria, diseinu simple bat egin nahi dugu. Diseinu minimalista. Ez dugu bilatu nahi estatusa ematea edo deigarria izatea funtzionala eta simplea izatea baizik.

2.2.4-PREZIOA

- Ahalik eta produktu ekonomikoena sortzea bilatuko dugu, baliabide hauek eskuragarriagoak izateko. Erlojuaren prezioa 169,99€-koa izango da.

2.2.5-ERRAZTASUNA ETA ERABILERRAZTASUNA

- Produktua erraza izango da erabiltzeko informazioa automatikoki transmititzen duelako, familiari app baten bidez edo medikuari edozein gauza komunikatuko die. Mugikortasun eza duten pertsonen errazteko ez da kudeagarria izango.

2.2.6-ARRISKUA MURRIZTU

- Larrialdi egoera baten aurrean medikuari edo familiari abisatzeko ahalmena du gure produktua, arriskua murriztuz. Produktuak berak arriskua murrizteaz gain, pertsonak gure erlojua identifikatzean pertsona haiei laguntza eskeintzea beharrezkoa izan ahal dela ikusiko dute.

2.2.7-ESKURAGARRITASUNA

- Gure erlojua oso erraz eskuratuko da. Eskuragarria izango da prezioarengatik. Gainera, produktu hau erostea erreza izango da, fisikoki , internetez, enpresaren webgunean(beste enpresa batek lagunduko digu web orri hori sortzen, gure kasuan Huawei eta Garmin).